



# Nazka

## 1

Begiratu Emoziotegiko 50-51. orrialdeetako irudiari, eta azaldu zer gauzak ematen dizuten nazka.

---

---

---

---

---

---

---

## 2

Zerrenda honetan, azpimarratu zer gauzak ematen dizuten **nazka**.

arropa zikinak    mastekatutako txikleak    igelek    barraskilo-mukiak

armíarmek    klarion-hautsak    dilistek    esne-gainak

eziak    hortzordeek    tabakoak    kola-usainak

- Orain, galdetu beste pertsona bati, eta inguratu hari nazka ematen dioten gauzak. Bat zatozte? Zeinetan?

---

---

### 3

Irakurri Emoziotegiko 50. orrialdeko testua, eta idatzi **E (egia)** edo **G (gezurra)**, dagokionaren arabera.

- Nazka sentsazio desatsegina da.
  - Haurtzarotik, gauza berberak ematen digute nazka.
  - Pertsona guztiei gauza berberak ematen diete nazka.
  - Nazka urruneko pertsonengandik ikasten da.
  - Nazka ematen duten gauzak aldatu egiten dira kultura batetik bestera.
- Orain, zuzendu esaldi okerrak.

---



---



---

### 4

Osatu esaldiak **nazkaren** familiako hitzekin.

nazka > nazkagarrikeria                      nazkagarri                      nazka eman

- Niri muskuiluek \_\_\_\_\_ didate. Hain dira izaki bitxiak...
- Nik, berriz, uste dut bareak \_\_\_\_\_ direla. Ezin dut jasan haietan pentsatze hutsa!
- Benetan \_\_\_\_\_ dena olagarro baten tentakulua da: likatsua da, mugitu egiten da, forma arraroa du...
- Arraioa! Zer \_\_\_\_\_ ematen dizueten animaliek!

# 5

Kasu bakoitzean, ordenatu hizkiak kontrako esanahia duen hitz bat osatzeko.

● estimu → TUEMSXP ER → \_\_\_\_\_

● zaporetsu → EZBAPROEGA → \_\_\_\_\_

● desberdín → REBABRE → \_\_\_\_\_

# 6

Idatzi **estimua** adierazteko bi modu.

---



---

# 7

Idatzi **nazka** adierazteko hiru modu.

---



---

# 8

Hautatu egiazkoa iruditzen zaizun esaldia, eta eman adibideak.

Nazka ikasi egiten da, eta aldatu egiten da adinaren eta kulturaren arabera.

Nazka berezkoa da, ilearen kolorea bezala, eta ezin da aldatu.

---



---

**9** Idatzi **1**etik **6**ra bitarteko zenbakiak honako ekintza hauek ordenatzeko nazka gutxien ematen duenetik gehien ematen duenera.

- Txakurrentzako katilu berri batean dilistak jatea.
- Dilista-irabiaki bat edatea.
- Erabilitako uretan garbitzea.
- Oinak lokatzetan sartzea eta zer ukitzen duten ikusterik ez izatea.
- Hiri handi baten erdigunean oinutsik ibiltzea.
- Hiriaren erdigunean oinutsik ibili den norbaiti oinak garbitzea.

**10** Orain, erantzun galdera hauei.

● Aurreko ekintzetako zeinetan ukitzen dira gauza zikinak?

---



---

● Zein uste duzu nazkagarriak izan litezkeela ezer zikinik ukitu ez arren?

---



---

● Ondo pentsatuz gero, zeinek uste duzu eman behar lizuketela nazka?

---



---

# 11

Begiratu berriz arretaz Emoziotegiko 50-51. orrialdeetako irudiari. Non uste duzu gertatzen dela egoera hori? Zeren isuriak dira?

---

---

---

---

---

---

---

---

# 12

Zer kutsadura-mota ezagutzen dituzu? Idatz itzazu, eta galdetu pertsona heldu bati besterik ezagutzen ote duen.

---

---

---

● Zure ustez, zergatik da txarra kutsadura?

---

---

---

---

